LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

ESPARRU MARKOAREN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

I. TITULUA. ESPARRU AKORDIOAREN XEDAPEN OROKORRAK ETA ONDORIOAK

I. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1. 1. Esparru-akordioaren xedea da karatulan zehaztutako hornidura/zerbitzuen baldintzak zehaztea. Esparru-akordioa aldi bakar batekin amaituko da. Hitzarmen horretan oinarritutako kontratuak bertan ezarritako baldintzen arabera egingo dira. Kontratazio-organoek idatziz kontsultatu ahal izango diote enpresaburuari, eta, beharrezkoa izanez gero, eskaintza osatzeko eskatuko diote..

2. Kontratuko alderdiek berariaz bete beharko dute Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan (aurrerantzean, BABA), dagokion Baldintza Tekniko Berezien Agirian (aurrerantzean, BTBA) eta gainerako dokumentu erantsietan ezarritakoa, eta horiek guztiek kontratu-izaera izango dute.

3. Baldintza-agirietan aurreikusten ez denerako, esparru markoak arau hauek izango ditu:

a. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko Zuzentarauak (2014/23/UE eta 2014/24/UE) Espainiako ordenamendu juridikora bihurtzen dituena (aurrerantzean, SPLK);

b. 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, partzialki garatzen duena;

c. 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena (aurrerantzean, APKLEO), aurrekoaren aurka ez doan guztian;

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES DE ACUERDO MARCO

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES Y EFECTOS DELACUERDO MARCO

CAPÍTULO I. RÉGIMEN JURÍDICO Y PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

1. RÉGIMEN JURÍDICO

1. El acuerdo marco tiene por objeto la determinación de las condiciones de los suministros/servicios especificados en la carátula. El acuerdo marco se concluirá con una sola empresa. los contratos basados en aquel se adjudicarán con arreglo a los términos en él establecidos. Los órganos de contratación podrán consultar por escrito al empresario, pidiéndole, si fuere necesario, que complete su oferta

2. Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (en adelante, PCAP), en su correspondiente Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares (en adelante, PPTP) y demás documentos anexos, todos los cuales revestirán carácter contractual.

3. Para lo no previsto en los pliegos, el acuerdo marco se regirá por:

a. Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP);

b. El Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público;

c. El Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, (en adelante, RGLCAP), en todo lo que no se oponga a la anterior;

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

d. 773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko arau jakin batzuk aldatzen dituena.

e. 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren eta telekominikazioen arloan segurtasun publikoko arrazoiengatik presako neurriak hartzen dituena;

f. Euskal Autonomia Erkidegoan (apirilaren 6ko 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzen dituena) nahiz Udalean kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen aplikagarrirengatik.

4. Nolanahi ere, lehen aipatutako lege- eta erregelamendu-arauak SPKLaren aurkakoak ez direnean aplikatuko dira.

5. Gainera, kontratua datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende geratzen da.

6. Osagarri gisa, Zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

7. BABA honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik badago, BABAn xedatutakoa lehentasunez aplikatuko da.

8. Ez ezagutzeak akordioaren klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak, ezta hitzartutakoa betetzekoan aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.

2. UDALAREN PRERROGATIBAK

1. Kontratazio-organoari dagozkio SPKLren 190. artikuluan zerrendatutako prerrogatibak.

2. Kontratazio honetatik sor daitezkeen arazo eztabaidagarriak kontratazio-organoak

d. El Real Decreto 773/2015, de 28 de agosto, por el que se modifican determinados preceptos del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

e. El Real Decreto-ley 14/2019, de 31 de octubre, por el cual se adoptan medidas urgentes por razones de seguridad pública en materia de administración digital, contratación del sector público y telecomunicaciones;

f. Por cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación tanto a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública) como a nivel del Ayuntamiento y que resulten aplicables.

4. En todo caso, las normas legales y reglamentarias citadas anteriormente serán de aplicación en todo lo que no se opongan a la LCSP.

5. Además, el acuerdo marco queda sometido a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos.

6. Supletoriamente, se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.

7. En caso de contradicción entre el presente PCAP y el resto de la documentación unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en el PCAP.

8. El desconocimiento de las cláusulas del acuerdo en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales que forman parte y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de lo pactado, no exime a la adjudicataria de la obligación de cumplirlas.

2. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

1. Corresponden al órgano de contratación las prerrogativas enumeradas en el artículo 190 de la LCSP.

2. Las cuestiones controvertidas que puedan derivarse de la presente contratación serán

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

ebatziko ditu, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta APKLEOren 97. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

3. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearaztekoak izango dira. Erabaki horiek zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, administrazio-errekurtso arruntetako edozein jartzea.

4. Interesdun batek eskatuta hasitako prozeduretan, ebazpena emateko aurreikusitako epea amaitu eta ebazpena jakinarazi ez denean, berariaz besterik ezartzen ez bada, interesdunak eskaera ezetsitzat jo ahal izango du administrazio-isiltasunez, prozedura horien xedea edo gaia kopuruak erreklamatzea, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo kontratazio administratiboak betearazteari, gauzatzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada. Hala ere, ebazteko betebeharrak bere horretan jarraituko du.

resueltas por el órgano de contratación, previa audiencia a la contratista, conforme al procedimiento establecido en los artículos 191 de la LCSP y 97 del RGLCAP.

3. Los acuerdos adoptados por el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa, sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición de cualquiera de los recursos administrativos ordinarios.

4. En los procedimientos iniciados a solicitud de una persona interesada, para los que no se establezca específicamente otra cosa, y que tengan por objeto o se refieran a la reclamación de cantidades, el ejercicio de prerrogativas administrativas o a cualquier otra cuestión relativa de la ejecución, consumación o extinción de la presente contratación administrativo, una vez transcurrido el plazo previsto para su resolución sin haberse notificado ésta, la persona interesada podrá considerar desestimada su solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de la subsistencia de la obligación de resolver.

II. KAPITULUA. KONTRATUAREN ARRAZIONALTASUNA ETA SENDOTASUNA

3. ESPARRU AKORDIOAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Bete nahi diren beharrak karatulako **1. atalean** deskribatutakoak izango dira, bertan deskribatutako esparru markoaren bidez.

4. ESPARRU AKORDIO- ETA ERATORRITAKO KONTRATUEN IRAUPEN-EPEA ETA PRESTAZIOA GAUZATZEKO EPEA

1. Esparru akordio zein eratorritako kontratuen iraupen-epea, kontratuaren gauzatze-epe osoa, gauzatze-epe partzialak, hala badagokio, edo zerbitzua hasteko data, karatulako **2. atalean** azaltzen dira.

2. Karatulako **2. atalean** hala adierazten bada, kontratazio-organoak luzatu ahal izango du esparru markoa, eta kontratistak nahitaez luzatu beharko du, baldin eta atal horretan bertan aurreikusitako aurrerapenarekin jakinarazten bada gutxienez. Epe hori ezingo

CAPÍTULO II. RACIONALIDAD Y CONSISTENCIA DE LA CONTRATACIÓN

3. NECESIDAD E IDONEIDAD DEL ACUERDO MARCO

Las necesidades a satisfacer serán las descritas en el **apartado 1** de la carátula, mediante el acuerdo marco descrito en el mismo.

4. PLAZO DE DURACIÓN DEL ACUERDO MARCO, DE LOS CONTRATOS BASADOS Y DE EJECUCIÓN DE LA PRESTACIÓN

1. El plazo de duración del acuerdo marco y de los contratos basados, el plazo de ejecución total, los plazos de ejecución parciales, en su caso, o la fecha de inicio del servicio, son los que figuran en el **apartado 2** de la carátula.

1. Si así se indica en el **apartado 2** de la carátula, el acuerdo marco podrá ser prorrogado por el órgano de contratación, siendo la prórroga obligatoria para el contratista, siempre que su preaviso se produzca al menos con la antelación prevista en el mismo apartado, que no

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

da izan akordioaren iraupen-epea amaitzen denetik bi hilabete baino laburragoa.

3. Hasieran eratutako behin betiko bermea luzapen-aldiari aplikatu ahal izango zaio, eta ez da beharrezkoa izango haren zenbatekoa doitzea, salbu eta luzapenarekin batera akordioa aldatzea erabakitzen bada.

podrá ser inferior al plazo general de dos meses, respecto de la finalización del plazo de duración del acuerdo

2. La garantía definitiva constituida inicialmente se podrá aplicar al período de prórroga sin que sea necesario reajustar su cuantía, salvo que junto con la prórroga se acuerde la modificación del acuerdo

III. KAPITULUA. HELEGITEEN ARAUBIDEA

5. HELEGITEEN ARAUBIDEA

Kontratazio-organoaren ebazpenen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo sektore publikoaren araubide juridikoaren indarreko araudian aurreikusitako errekurtso arruntak jarri ahal izango dira, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi eguneko epean.

CAPÍTULO III. RÉGIMEN DE RECURSOS

5. RÉGIMEN DE RECURSOS

Contra las resoluciones del órgano de contratación se podrán interponer los recursos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o en la regulación vigente del régimen jurídico del sector público, así como el recurso contencioso-administrativo, en los términos previstos en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses.

II. TITULUA. ALDERDIAK

TÍTULO II. PARTES

I. KAPITULUA. KONTRATAZIO-ORGANOA

6. KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio honetako kontratazio-organoa karatulako **3. atalean** agertzen dena da.

7. ESPARRU MARKOAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak esparru markoaren arduradun izendatu du karatulako **3. atalean** agertzen dena edo haren ordezkoa, eta hari egokituko zaizkio SPKLren 62.1 artikuluan jasotako eginkizunak.

1. ESPARRU AKORDIOAREN JARRAIPENAREN ETA GAUZAPENAREN UNITATE ARDURADUNA

Esparru markoaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratuko den unitatea karatulako **3. atalean** adierazitakoa izango da.

CAPÍTULO I. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

6. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

El órgano de contratación de la presente contratación es el que figura en el **apartado 3** de la carátula.

7. RESPONSABLE DEL ACUERDO MARCO

El órgano de contratación designa, como responsable del acuerdo marco, al que figure en el **apartado 3** de la carátula o persona que le sustituya, a quien corresponderán las funciones recogidas en el artículo 62.1 de la LCSP.

8. UNIDAD ENCARGADA DEL SEGUIMIENTO Y EJECUCIÓN DEL ACUERDO MARCO

La unidad encargada del seguimiento y ejecución ordinaria del acuerdo marco será la que se indica en el **apartado 3** de la carátula.

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

9. KONTRATAZIO-MAHAIA

1. Karatularen **3. atalean** jasotzen da haren osaera, eta, kontratatzailearen profilaren bidez, lizitazio-iragarkian argitaratuko da, edo, bestela, eratu aurretik beti, profil horretako berariazko iragarki baten bidez.

2. Eskaintzak balioesteko eskumena duen organo teknikoa izango da, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, 21. eta 22. artikuluekin bat etorriz.

3. Kontratazio-mahaiak, bere eginkizunak betetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu.

4. Kontratazio-mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak emateko edo eskaintzan egindako akats material nabarmenak zuzentzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta eskaintzaren baldintzak ez aldatuz. Egindako guztia espedientean jaso beharko da.

9. MESA DE CONTRATACIÓN

1. Su composición se recoge en el **apartado 3** de la carátula y se publicará, a través del perfil de contratante, en el anuncio de licitación o, en caso contrario, siempre con carácter previo a su constitución, a través de un anuncio específico en el citado perfil.

2. Será el órgano técnico competente para efectuar la valoración de las ofertas y actuará conforme a lo previsto en el artículo 326 de la LCSP, y de acuerdo con los artículos 21 y 22 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, que vienen a desarrollar su composición y funciones.

3. Para el ejercicio de sus funciones, la mesa podrá solicitar cuantos informes técnicos considere precisos.

4. La mesa de contratación podrá solicitar a las licitadoras aclaración sobre la oferta presentada o la corrección de manifiestos errores materiales en la redacción de la misma, siempre que respete el principio de igualdad de trato y sin que puedan, en ningún caso, modificarse los términos de la oferta. De todo lo actuado deberá dejarse constancia en el expediente.

II. KAPITULUA. ENPRESABURUAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

CAPÍTULO II. CAPACIDAD Y SOLVENCIA DEL EMPRESARIO

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1. Lizitazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, banaka edo Aldi Baterako Enpresa-Elkartean (ABEE), baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, SPKLren 71. artikuluko kontratatzeko debekurik ez badute eta ekonomia-, finantza- eta teknika-kaudimena dutela egiaztatzen badute, karatulako **4. atalean** aurreikusitako moduan.

2. Lehia mugatzeko aukera kontuan hartuta, karatulako **goiburuan** adierazten da lizitatzaileak – ABEEak ere bai, aurkeztuz gero – Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE) edo Euskadi mailako baliokidean (REVASCON) inskribatuta egotea

10. CAPACIDAD PARA CONTRATAR

1. Podrán optar a la adjudicación las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, a título individual o en Unión Temporal de Empresas (UTE), que tengan plena capacidad de obrar, que no estén incursas en ninguna de las prohibiciones de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP y que acrediten su solvencia económica, financiera y técnica, en los términos previstos en el **apartado 4** de la carátula.

2. Atendiendo a la posible limitación de la concurrencia, en el **encabezado** de la carátula se indica si es obligatorio que los licitadores –también las UTEs, en caso de presentarse alguna– estén inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público (ROLECE) o en el

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

derrigorrezkoa den eskaintzak aurkezteko azken egunean edo inskripzioa eskatuta edukitzea. Derrigortasun hori ez da iristen atzerriko enpresetara.

3. Kontratistek, halaber, esparru akordioaren xedea osatzen duten prestazioak emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute. Gaikuntza hori, hala badagokio, karatulako **4. atalean** zehaztuko da. Dena dela, kontratistak egiaztatu beharko du aplikagarria den araudiak eskatzen dituen gaikuntzak dituela.

4. Kontratistek beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa horren kideren bat balego, agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, aipatutako kontratatzeko ezintasun-kausek ordezkariari eragiten diote.

5. Kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira, eta esparru akordioa burutzen den unea iraun beharko dute.

6. Jarduteko gaitasuna eta kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzeko, agiri honetako 35, 36 eta 43 klausuletan azaltzen diren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

11. KAUDIMENA

1. Karatulako **4. atalean** adierazten da esparru marko honetan ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzea nahitaezkoa den ala ez, SPKLren 92. artikuluan eta APKLEOren 11. artikuluan xedatutakoarekin batera.

2. Esparru akordio honetan eskatzen den ekonomia- eta finantza- kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala karatulako **4. atalean** adierazitako moduan egiaztatuko dira, bertan jasotako baliabideen, gutxieneko zenbatekoen eta egiaztagirien bidez.

equivalente a nivel de Euskadi (REVASCON), en la fecha final de presentación de ofertas o que hayan solicitado la inscripción. Esta obligatoriedad no alcanza a las empresas extranjeras.

4. Los contratistas deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del acuerdo marco, lo cual se especificará, en su caso, en el **apartado 4** de la carátula, si bien el contratista deberá acreditar que cuenta con las habilitaciones exigidas por la normativa que sea de aplicación.

5. Los contratistas podrán hacerlo por sí o representados por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra alguna de sus personas miembros, deberá justificar documentalmente que está facultada para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la persona representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

6. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de la perfección del acuerdo marco.

7. La acreditación de la capacidad de obrar, así como de la no concurrencia de una prohibición de contratar, se realizará a través de los medios de justificación que figuran en las cláusulas 35, 36 y 43 de este pliego.

11. SOLVENCIA

1. En el **apartado 4** de la carátula se indica si en el presente acuerdo marco es obligatoria o no la acreditación de solvencia económica y financiera y técnica o profesional, en virtud de lo dispuesto en el artículo 92 de la LCSP y 11 del RGLCAP.

2. La solvencia económica y financiera y técnica o profesional exigible en el presente acuerdo marco se acreditará, en su caso, por los medios que se indican en el **apartado 4** de la carátula, en el que constan los medios admitidos, los importes mínimos, los documentos acreditativos, así como la clasificación corres-

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

3. Kaudimena bi modutan egiaztatu ahalko da: adierazten den sailkapenaren bidez edo agiri honetan eskatzen diren kaudimen-eskakizunak betez.

4. Espainiakoak ez diren Europar batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburuei ezin izango zaie sailkapena eskatu, akordiora bakarka nahiz batasun batean integratuta aurkezten badira ere. Beraz, haien kaudimena nahitaez karatulako **4. atalean** adierazitako moduen bidez egiaztatu beharko dute.

5. Hala ere, kaudimenaren egiaztapena dagokion lizitatzaileen erregistroko inskripzio ziurtagirian agertzen diren bitartekoekin egin edo osatu ahal izango da, dela ROLECEn, REVASCONen, dela Europar Batasuneko estatu kideren bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan.

12. KAUDIMENA KANPOKO BITARTEKOEKIN INTEGRATZEA

1. Lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarrituta egiaztatu ahalko dute esparru markoa egiteko behar den kaudimena, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badute esparru markoa gauzatzen den bitartean kaudimen eta bitarteko horiek benetan izango dituztela, eta errekurtsoa jarri zaion erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

1. Nolanahi ere, kaudimena kanpoko baliabideekin integratzeko, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

13. KAUDIMEN-BALDINTZAK ZEHAZTEA

1. Karatularen **4. atalak** ezarriko du, hala badagokio, pertsona juridikoei eskatuko zaiela, eskaintzan edo parte hartzeko eskaeran, prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa zehaztea. Halaber, hala badagokio, kontratuko funtsezko betebeharra dela ezarriko du, 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta SPKLren 192.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

pondiente al objeto y cuantía del acuerdo

3. La solvencia se acreditará indistintamente mediante la clasificación que se indica o el cumplimiento de los requisitos específicos de solvencia exigidos en este pliego.

4. No será exigible la clasificación a los empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, ya concurran al acuerdo aisladamente o integrados en una unión. Por ello, deberán acreditar su solvencia a través de los medios establecidos en el **apartado 4** de la carátula.

5. No obstante, la acreditación de la solvencia podrá realizarse o completarse con los medios que consten en el certificado de inscripción en el registro de licitadores que corresponda, ya sea en el ROLECE, en el REVASCON o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado Miembro de la Unión Europea.

12. INTEGRACIÓN DE LA SOLVENCIA CON MEDIOS EXTERNOS

1. Los licitadores podrán acreditar la solvencia necesaria para celebrar el acuerdo marco basándose en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que durante toda la duración de la ejecución del acuerdo marco dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar.

2. En todo caso, la integración de solvencia con medios externos estará sujeta a lo dispuesto en el artículo 75 de la LCSP.

13. CONCRECIÓN DE LAS CONDICIONES DE SOLVENCIA

1. El **apartado 4** de la carátula establecerá, en su caso, la exigencia a las personas jurídicas de que especifiquen, en la oferta o en la solicitud de participación, los nombres y la cualificación profesional del personal responsable de ejecutar la prestación, así como su carácter de obligación contractual esencial a los efectos previstos en el artículo 211, conforme a lo señalado en el artículo 192.2 de la LCSP para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

2. Era berean, karatulako **4. atalak** ezarriko du, hala badagokio, lizitatzaileei eskatuko zaiela konpromisoa har dezatela kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide edo baliabide material erabiltzeko edo atxikitzeko. Halaber, hala badagokio, esparru akordioaren funtsezko betebeharra dela ezarriko du, 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2. Asimismo, el **apartado 4** de la carátula establecerá, en su caso, la exigencia a los licitadores de que se comprometan a dedicar o adscribir a la ejecución del acuerdo marco los medios personales o materiales suficientes para ello, así como su carácter de obligación contractual esencial a los efectos previstos en el artículo 2111.f) de la LCSP.

14. KALITATE-BERMEKO ETA INGURUMEN-KUDEAKETAKO ARAUAK BETETZEAREN EGIAZTAPENA

Karatulako **4. atalak** kalitate-bermeei edo ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzeko eska dezake.

14. ACREDITACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE LAS NORMAS DE GARANTÍA DE LA CALIDAD Y DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL

El **apartado 4** de la carátula podrá exigir la acreditación del cumplimiento de las normas de garantías de calidad o de gestión medioambiental.

15. ASEGURUAK

1. Kontratistak karatulako **4. atalean** adierazitako aseguru-polizak harpidetu beharko ditu bere kargura, bertan ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzen arabera.

2. Kontratua gauzatzen den bitarte guztian indarrean egon beharko du. Kontratua gauzatzeko epea izenpetutako aseguruaren indarraldia baino luzeagoa denean, esleipendunak aseguru hori berritu edo luzatuko dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, esparru akordioaren gauzatzen den epealdi osoan bere indarraldiari eutsi diezaion.

3. Esleipendunak akordio markoa sinatu aurretik formalizatuko ditu polizak, eta pagamenduan egunean edukiko ditu indarrean dauden bitartean. Udalari horien kopiak entregatu beharko dizkio, eta, ondoren, kontzeptu horregatik urtero ordaindutako primen ordainagirien kopiak. Era berean, izenpetutako polizien hurrenez hurreneko berritzeak Udalari jakinarazi beharko dizkio, baita haietan gertatzen diren aldaketa guztiak ere.

4. Edozein kasutan ere, baldin eta kalteen zenbatekoa polizetan aseguratutako kopurua baino handiagoa bada, diferentzia hori oso-osorik enpresa edo pertsona esleipendunak hartuko du bere gain.

15. SEGUROS

1. El contratista estará obligado a suscribir, a su cargo, las pólizas de seguros que se indican en el **apartado 4** de la carátula, por los conceptos, cuantías, coberturas, duración y condiciones que se establecen en el mismo.

2. Deberá mantener su vigencia durante todo el plazo de ejecución. En los casos en los que el plazo de ejecución sea superior a la vigencia del seguro suscrito, el adjudicatario deberá presentar la documentación que acredite la renovación o prorroga del seguro, de forma que mantenga su vigencia durante todo el plazo de ejecución del acuerdo marco

3. El adjudicatario formalizará las pólizas antes de la firma del acuerdo marco, y las mantendrá al corriente de pago durante su vigencia, debiendo entregar al Ayuntamiento copia de éstas y, posteriormente, duplicados de los recibos de pago de las primas satisfechas anualmente por el citado concepto. Igualmente, deberá notificar al Ayuntamiento las sucesivas renovaciones de las pólizas suscritas, así como cuantas modificaciones experimenten.

4. En cualquier caso, si el importe de los daños fuera superior a la cantidad asegurada en las pólizas, la diferencia será asumida exclusivamente por la empresa o persona adjudicataria.

16. DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

16. DOCUMENTACIÓN E INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

Kontratazio-organoak edo haren organo laguntzaileak egokitzat jotzen dituen ziurtagiriei eta aurkeztutako dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkio enpresaburuari, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango dio.

El órgano de contratación o el órgano auxiliar de éste podrá recabar del empresario aclaraciones sobre los certificados y documentos presentados que estime pertinentes, o requerirles para la presentación de otros complementarios.

III. KAPITULUA. KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA

CAPÍTULO III. SUCESIÓN EN LA PERSONA DEL CONTRATISTA

17. KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA-KASUAK

Enpresen edo horien jarduera-adarren bategite, zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, esparru akordioak aurrera jarraituko du kontratua esleitu zaion erakundearekin, eta esparru akordiotik edo eratorritako kontratu horretatik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira.
Kontratista ABEE bada, SPKLren 69. artikuluan ezarritakoa beteko da.

17. SUPUESTOS DE SUCESIÓN DEL CONTRATISTA

En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el acuerdo marco con la entidad a la que se atribuyan el acuerdo y el contrato basado, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP.

Cuando la contratista sea una UTE se estará a lo establecido en el artículo 69 de la LCSP.

III. TITULUA. XEDEA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA, PREZIOA ETA BERRIKUSPENA

TÍTULO III. OBJETO, PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN, VALOR ESTIMADO, PRECIO Y SU REVISIÓN

II. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

CAPÍTULO I. NORMAS GENERALES

18. XEDEA

1. Esparru akordioaren xedea karatulako **5. atalean** deskribatutakoa da, BTBAn ezarritako baldintzen eta, hala badagokio, aurreikusitako aldaketen araberakoa.

2. Kontratuen Hiztegi Bateratua (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa karatulako **5. atalean** jasotzen da.

3. Karatulako **5. atalean** hala adierazten bada, sortaka lizitatuko da, bertan deskribatzen diren termino eta mugen arabera.

4. Karatulako **5. atalean** hala adierazten bada, bertan adierazitako erakundeek bakarrik parte hartu ahal izango dute, akordio osoan

18. OBJETO

1. Constituye el objeto del acuerdo marco el descrito en el **apartado 5** de la carátula, de acuerdo con las condiciones establecidas en el PPTP y, en su caso, las modificaciones del mismo que puedan acordarse.

2. La codificación correspondiente a la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) figura en el **apartado 5** de la carátula.

3. Si así se señala en el **apartado 5** de la carátula, se licitará por lotes, siguiendo los términos y límites que se describen en el mismo.

4. Si así se señala en el **apartado 5** de la carátula, la participación quedará reservada a las entidades allí indicadas, en todo el acuerdo o por

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

edo sortaka, akordioan adierazitakoaren arabera.

19. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa karatulako **6. atalean** adierazitakoa izango da gehienez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Esparru-akordio bat izapidetu aurretik, lizitaziorako oinarrizko aurrekontu bat onartzea ez da nahitaezkoa izango.

lotes, según lo indicado en el mismo.

19. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

El importe del presupuesto base de licitación es el señalado como máximo en el **apartado 6** de la carátula, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA). Con carácter previo a la tramitación de un acuerdo marco no será necesario que se apruebe un presupuesto base de licitación

20. BALIO ZENBATETSIA

Balio zenbatetsia karatulako **6. atalean** adierazitako zenbatekoa da.

Balio zenbatetsi horretan sartuko dira hala aurreikusten bada, karatulako **19. atalean** adierazitako kontratu-aldaketak.

Esparru-akordioan kontuan hartzen da esparru-akordioaren iraupen osoan aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta.

20. VALOR ESTIMADO

El valor estimado asciende a la cantidad expresada en el **apartado 6** de la carátula.

Dicho valor estimado incluirá, en el supuesto de que así se prevean, las posibles modificaciones contractuales señaladas en el **apartado 19** de la carátula.

En el acuerdo marco se tiene en cuenta el valor máximo estimado, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, del conjunto de contratos previstos durante la duración total del acuerdo marco

21. PREZIOA

1. Prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da, eta BEZa adierazi beharko du partida independente gisa.

2. Prezioan sartuta daude aplikatzekoak diren zergak, tasak eta kanonak, baita agiri honetan jasotako betebeharrak betetzeren ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

3. Karatulako **6. atalean** prezioa zehazteko erabilitako sistema adierazten da.

4. Prezioa oroharreko prezioan zehazten denean, prezioa enpresak esleipendunak eskainitakoa izango da, eta ezingo du inola ere gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

21. PRECIO

1. El precio será el que resulte de la adjudicación del mismo y deberá indicar como partida independiente el IVA.

2. En el precio se considerarán incluidos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos que se originen para la adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en el presente pliego.

3. En el **apartado 6** de la carátula se indica el sistema utilizado para la determinación del precio.

4. Cuando la determinación del precio se efectúe a tanto alzado, el precio será el ofertado por la empresa adjudicataria, que en ningún caso podrá superar el presupuesto base de licitación.

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

5. Prestazioren osagai edo unitateei dagozkien unitate-prezioen bidez zehazten denean prezioa:

   a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez ezartzen bada, esleipendunak eskainitako unitate-prezioa unitate-kopuruarekin biderkatzearen emaitza izango da prezioa.

   b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez ezartzen ez bada, unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

6. Karatulako **6. atalean** hala adierazten bada, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan agertzen diren prezio unitario partzialak baino ehuneko handiagoa badute. Dena den, ateratzen den gehieneko prezioak ezingo du inola ere gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

7. Xedea zerbitzu konplexu bat bada, bere exekuzioak hasierako inbertsio-kostuak berekin dakartzana, eta aurreikusten bada sortzen diren obrak edo ekipamenduak Udalaren ondarean sartuko dira akordioa amaitzean edo suntsiaraztean, horien truke konpentsatzeko ordainketa-sistema bat ezarri ahalko da.

22. FINANTZAKETA

1. Karatulako **7. atalean** adierazitako erakundeek finantzatuko dute esparru markoa, bertan jasotako aurrekontu-partiden kargura eta urteko kopuruaren arabera. Halaber, kreditu egokia eta nahikoa dago esparru markoak betetzeak Udalari dakarzkion betebeharrei erantzuteko.

2. Europako fondoekin batera finantzatuz gero, kontratazioa Tratatuaren xedapenen eta haren arabera ezarritako egintzen mende egongo da; koherentea izango da garapen iraunkorraren eta ingurumenaren hobekuntzaren aldeko Erkidegoko jarduerarekin, politikarekin eta lehentasunekin: eta sustatu beharko ditu hazkundea, lehiakortasuna, enplegua eta gizarteratzea, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ere, Europako

5. Cuando la determinación del precio se efectúe a través de precios unitarios correspondientes a los distintos componentes o unidades de prestación:

   a) En el caso de que el número de unidades que integran el objeto se defina con exactitud, el precio será el resultado de multiplicar el precio unitario ofertado por el adjudicatario por el número de unidades.

   b) En el caso de que el número de unidades que integran el objeto no se defina con exactitud, el precio de cada unidad será el ofertado por la adjudicataria.

6. Si así se señala en el **apartado 6** de la carátula, se admitirán ofertas económicas que incluyan precios unitarios parciales con un porcentaje de incremento respecto a los que figuran en el presupuesto base de licitación, si bien en ningún caso el precio máximo resultante podrá superar el importe del presupuesto base de licitación.

7. En el supuesto de que el objeto consista en un servicio complejo en el que la ejecución del acuerdo lleve aparejados costes de inversión iniciales y se prevea que las obras o equipamientos que se generen vayan a incorporarse al patrimonio del Ayuntamiento al concluir o resolverse el acuerdo, podrá establecerse un sistema de retribución que compense por las mismas.

22. FINANCIACIÓN

1. El acuerdo marco se financiará por las entidades indicadas en el **apartado 7** de la carátula, con cargo a las partidas presupuestarias y conforme a las anualidades que se establecen en el mismo apartado, existiendo crédito adecuado y suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento del acuerdo marco

2. En el supuesto de cofinanciación con Fondos Europeos, la contratación deberá supeditarse a las disposiciones del Tratado y a los actos fijados en virtud del mismo, y será coherente con las actividades, políticas y prioridades comunitarias en pro de un desarrollo sostenible y mejora del medio ambiente, debiendo promover el crecimiento, la competitividad, el empleo y la inclusión social, así como la igualdad entre hombres y mujeres, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Reg-

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

3. Espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, akordioaren eta eratorritako kontratuaren esleipena eteteko baldintza izango da dagokion ekitaldian esparru markotik edo eratorritako kontratutik eratorritako betebeharrak bermatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

II. KAPITULUA. KONTRATUA

23. PREZIOEN BERRIKUSPENA

1. Prezioak berrikustean, karatulako **8. atalean** zehaztutakoa beteko da.

2. Hala dagokionean, SPKLren Lehen Liburuko III. Tituluko II. Kapituluan aurreikusitakoaren arabera berrikusiko dira prezioak.

IV. TITULUA. BERMEAK

II. KAPITULUA. KONTRATUA

24. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen behin-behineko bermerik.

II. KAPITULUA. BEHIN BETIKO BERMEA

25. BEHIN BETIKO BERMEA

1. Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio-organoaren eskura, ZAZPI (7) EGUN BALIODUNEKO epean, hala eskatu zaion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Berme horren zenbatekoa karatulako **9. atalean** aurreikusitako zenbatekoaren % 5 izango da, BEZik gabe. SPKLren 107.5 artikuluak aipatzen duen balioetsitako berme orokorra da.
Behin betiko bermeak erantzun egingo du esparru-akordioaren eta kasuan kasuko oinarrizko kontratuaren ez-betetzeei dagokienez.

2. Esleipenduna behin betiko bermea eratzeko betebeharretik salbuesten bada, hala

lamento (UE) nº 1303/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013.

3. Si el expediente se tramita anticipadamente, la adjudicación del acuerdo y del contrato basado quedará sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para garantizar las obligaciones derivadas del acuerdo o del contrato basado en el ejercicio correspondiente.

CAPÍTULO II. REVISIÓN DE PRECIOS

23. REVISIÓN DE PRECIOS

1. En la revisión de precios se estará a lo especificado en el **apartado 8** de la carátula.

2. Cuando proceda, la revisión de precios tendrá lugar de conformidad con lo previsto en el Capítulo II del Título III del Libro Primero de la LCSP.

TÍTULO IV. GARANTÍAS

CAPÍTULO I. GARANTÍA PROVISIONAL

24. GARANTÍA PROVISIONAL

No procede su constitución.

CAPÍTULO II. GARANTÍA DEFINITIVA

25. GARANTÍA DEFINITIVA

1. La licitadora que presente la mejor oferta deberá constituir a disposición del órgano de contratación, en el plazo de SIETE (7) DÍAS HÁBILES desde el día siguiente a aquel en que haya sido requerido para ello, una garantía definitiva de cuantía igual al 5% del importe previsto en el **apartado 9** de la carátula, IVA excluido. Se trata de la garantía general estimativa a que se refiere el artículo 107.5 LCSP.

La garantía definitiva responderá respecto de los incumplimientos tanto del acuerdo marco como del contrato basado de que se trate.

2. En caso de que se exima al adjudicatario de la obligación de constituir garantía definitiva, se

ESKU0319174b-0f8c-418f-a4f4-06826ffd9617

adieraziko da karatulako **9. atalean**, eta bertan adieraziko dira dispentsa horren arrazoiak.

indicará así en el **apartado 9** de la carátula, en la que se indicarán los motivos de tal dispensa.

3. Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. Artikuluan aipatzen diren kontzeptuen araberakoa izango da. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

3. En todo caso, la garantía definitiva responderá de los conceptos a que se refiere el artículo 110 de la LCSP. Dentro de dichos conceptos se incluye el incumplimiento por parte del contratista de la obligación de indemnización de daños y perjuicios causados a terceros, prevista en el artículo 196 de la LCSP.

4. Behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta APKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratuko da, eta uda-diruzaintzan jaso beharko da. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du haren aldeko esleipena egingo.

4. La garantía definitiva podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en los artículos 108 de la LCSP y 55 y siguientes del RGLCAP, debiendo consignarse en la Tesorería Municipal. De no cumplirse este requisito por causas imputables a la empresa adjudicataria, el Ayuntamiento no efectuará la adjudicación a su favor.

Karatulako **9. atalean** hala adierazten bada, bermea, lizitatzaileak eskatuta, prezio-atxikipenaren bidez eratu ahalko da. Kasu horretan, besterik esan ezean, lehenengo ordainketan eta hurrengoetan egingo da, beharrezkoa izanez gero, edo, hala badagokio, esparru markoaren zenbateko osoaren ordainketan.

En el caso de que así se indique en el **apartado 9** de la carátula, la garantía podrá constituirse, a instancia del licitador, mediante retención en el precio, la cual, salvo otra indicación, se llevará a cabo en el primer abono y en los sucesivos, si fuere necesario, o, en su caso, en el pago del importe total del acuerdo marco.

5. Aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, bermea doitu egin beharko da HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean, esleipendunari aldaketa-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita, aldatutako prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

